

BENIGNO ALBENIZ -UZTARGILEA-

“Buruak zentzua zenbat daukan, haraño juaten da eskua”

■ Uztarriak egiten hasi zen; baina, egurrari edozer ateratzen dio orain ■ Utzi xamartuta eduki zuenean, ‘publikoak’ segiarazi omen zion ■ Gaurko Artisau Azokarako piezarik dotoreenak dauzka gordeta Benignok.



Benigno Albeniz uztarri eginean. Pablo Lasa hernaniarra izan zuen irakasle, orain 20 urte Aiatik etorri zenean.

AIAn, Iruntxi Berri base-
rrian jaio zen, 1935ean.
Hernanira 20 urte zituela
etorri zen eta bertan bizitu
da ordutik. Bertsozale su-
tsua da. Obran aritu da
lanean beti, nahiz eta egu-
rra lantzen denbora asko
pasa. Gaur egun, erakuske-
taz-erakusketa ibiltzen da
“Santandertik hasi eta
honera bitarteko herri
guztietan”.

■ KRONIKA: Noiz hasi zinen uztarrigintzan?

BENIGNO: Hernanira etorri eta bela; hogeita bat urterekin. Pablo Lasa izan nuen irakasle. Basariz-basarri juaten ginan: neurriak hartu eta uztarria egin. Orduan ez zegoen lan faltarik.

■ Baina, ez zara uztarriak egiten bakarrik aritu.

Ez. 1955 inguru hortan etorri zan uztargileen galera, traktoreak sartzen hasi zirenean. Orduan, askok utzi behar izan zuten ofizioa. Nik neronek denbora puska batean eduki nuen utzita. Obran ere aritu nintzen. Kuadrila bat neukan

nerekin lanean eta ezin nintzan denera iritsi.

■ Eta nola eutsi zenion ofizioari?

Nik ikusi nuen uztarriak egiten ez zegoela lanik. Baina, enbor batetik gauza asko atera daitezke. Horrela, ba, bestelako piezak ere egiten hasi nintzen. Horrek arrakasta eman zidan. Joaten nintzen plaza guztietan esaten zidaten: “hik daukaken abilitadearekin, nola ez haiz gehiago dedikatzen hontara?”. Publikoak eutsi dit neri; eta eguneroko esfortzuak.

■ Sekretoren bat izango du egurra lantzeak.

Jardutea bezelakorik ez dago horretarako. Eskua jarri egiten da edozertara. Buruak zentzua zenbat daukan, haraño iristen da eskua.

Bestalde, egurra ezagutu behar da. Zer egin behar duzun, halako egurra behar duzu. Adibidez, uztarriak egiteko pagoa da ona. Uzta-rria ona izateko, iraupen haundikoa behar du. Pago egurra oso ona da horretarako. Bestelako piezak egiteko, eskulaturak eta antzekoak, nik gere-

zia ibiltzen det asko. Erraz moldatzen den egurra da eta oso kolore dotoreak ditu.

■ Orain, herriz-herri zabil-tza. Ze harrera jendeak?

Jendea apartatu gabe egoten da nere ondoan, batzuk ordutan. Askok egurra lantzen ikasten ari direnak dira. Beste asko kuriosidadez gelditzen dira. Azoka ez da negozio izugarria, baina, ezagutu egiten zaituzte azkenean.

Ofizio honek ez du etorkizunik, baina, honezkero, emango ahal du guretzako lain! □

■ FUTBOLA

Hernani-Irun gaur Zubipen

■ PARTIDU garrantzitsua du gaur Zubipen Hernanik. Sailkapenean atzetik baina gertu duen Irungo taldearen kontra jokatu du. Hernaniarrak 12garren postura igo dira, lehengo asteburuan irabazita; 16 puntu dituzte. Irundarrak 14garren dira, hiru puntu gutxiagorekin: 13 punturekin.

Hernaniarrak fin ari dira e-txetik kanpo. Ea gaur etxean ere irabazten badakitela erakusten duten. Zubipen, 16:30etan. □

■ WATERPOLOA

Mutilen lehen taldea sorpresa ematera

■ D. Nautikaren kontra jokatu du gaur Hernanik, kiroldegian. Oraingo bi partidu irabazi eta bakarra galdu dute hernaniarrak: Euskal Herriko lehen mailan, ez da gutxi. Gaur oso partidu zaila dute, baina, ea orain artekoari eusten dioten. Kiroldegian, 13:00etan.

Bigarren mailako taldeak ere gaur jokatu du: 12:00etan kiroldegian, Easoren kontra. □

Artisau azoka plazan, goiz eta arratsalde

■ Hogeita bigarren artisau azoka egingo da gaur, Gudarien Plazan. Han Hogeita sei artisau izango ditugu. Goizean 11:00etatik 14:00-etara eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara. □

Dantzari Txapelketa gaur Plaza Berrian

■ Eguerdiko 12:00etan da
■ 15 bikote ariko dira.

URMAR BIKOLAJEA

Oztaran auzoa, 13
Tel 943 552616-Faxa 943 552412
20130 URNIETA (Gipuzkoa)

KixKal Taberna

naqusia 15
Egunero pintxo aukera ederra. Asteburuetan pintxo beroak ere bai.

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tallerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

Peugeot 306 SV	TD 3 urte	1.675.000 pta
Peugeot 206	Diesela	550.000 pta
Peugeot 205	Gasolina	580.000 pta
Peugeot 309	Gasolina	190.000 pta
Ford Scort	16 balbula	550.000 pta
Citroen AX	Diesela	390.000 pta
VW Polo	Gasolina	300.000 pta
Renault Express	Diesela	650.000 pta
Land Rover	Diesela	175.000 pta

eta beste hainbat, 100.000 eta 200.000 pta artean...

‘ETXERAT’ ELKARTEA

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatu zuten 300 bat lagunek

■ Kontzentrazioa ostiralean izan zen, Gudarien plazan.



Mahaia kriseiluekin eta jendea bueltan-bueltan. Presoen senideak pankarta eta argazkiak eskutan dituztela.

ETXERAT elkarteak (Senideak-Gureak orain arte) kontzentrazioa deitu zuen ostiralerako, euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko. Hemendik aurrera hilero egingo dute kontzentrazioa,

Euskal Herriko herri askotan.

JENDEARI DEIA

Kontzentrazio ostean irakurri zuten testuan, “Euskal gizartearen gehiengo presoak Euskadira ekartzearen alde” dago-

ela esan zuten Etxerat elkartetik, eta kontzentrazioetara joateko dei egin zieten herritarrei. Kontzentrazioak hileroko azken ostiralean izango dira Gudarien plazan, arratsaldeko 20:00etan. □

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

2002rako egitasmo orokorra aurkeztu zen batzarrean

■ Abenduan, jendearen proposamenak jasoko dituzte, 2002ko plan zehatzagoa egiten hasteko ■ Lan konkretuetarako prest dagoen jendea bildu nahi dute.

DOBERA Euskara Elkartek batzarra egin zuen ostiralean bazkideekin. Datorren urterako egitasmoa aurkeztu zuten. Lehengo proiektuen jarraipena eta proiektu berriak hartzen ditu egitasmoak.

JENDEAREN

PROPOSAMENEN ZAIN

Zuzendaritzak osatu duen egitasmoa jendearen proposamen berrien zain gelditu da orain. Abendua hartuko dute jendeak

bere ideiak eman eta lanak ondo zehazteko. Zerbait duenak Doberan bertan utzi leza-ke, astelehenetik ostiralera.

LAN EGITEKO JENDEA

Egitasmoa egitea bat da, baina, argi utzi zuten batzarrean, jendea lan egiteko prest dagoen neurrian beteko dela gero egitasmoa. Doberako zuzendaritzak urtean zehar lan konkretuetan ari nahi duen jendea inguratu nahi du.

HIRU LAN ARLO

Erritarrak sentsibilizatzen, euskararen erabilera sustatzen eta Herri komunikabideen proiektua sendotzen lan egingo du Doberak 2002an.

Horretarako proiektu konkretuak ere finkatuta daude: aisialdiko lanak, begirale ikastaroak, kontzertu eta bestelako ekitaldiak, lehiaketak, ikerketa bekak...

Lan egiteko gogoz denak badaki aukera non duen. □

Ttarlak logoa aukeratzeko botazio herrikoia egingo du

■ Gaur 12:00etatik 14:00etara egongo dira Plazan lanak, jendeak botatu ahal izateko.

HAMABOST lan aurkeztu dituzte Ttarlak logoa aukeratzeko egindako deialdian. Aurkeztutakoetatik bat aukeratu behar, eta horretarako herriari eman nahi dio hitza

Ttarlak. Gaur eguerdian 15 lanak jarriko dituzte Gudarien plazan. Nahi duenak, lan bati botoa eman diezaioke eta botorik gehien duena hartuko du Ttarlak logo bezala. □

‘AHT GELDITU’ TALDEA

Abiadura Haundiko Trenaren kontrako mendi martxa

■ AHT Gelditu taldeak mendi martxa antolatu du gaurko, AHT-aren proiektua salatzeko. Irteera goizeko 09:00etan izango da Gudarien plazatik. □

Birziklatzeko ‘pintzak’ banatuko ditu etxez-etxe Diputazioak

■ ‘Pintza’ hauek Kubo bakarrean bi poltsa jartzeko balioko dute ■ Datorren urterako etxe guztietan izango da.



Diputazioko arduradunak, asteazkeneko prentsaurrekoan.

DIPUTAZIOAK prentsaurrekoa eman zuen asteazkenean birziklaia bultzatzeko.

Papera eta kristala apartatzea oso erraza eta garbia da. Baina, plastikoa, latak eta tetrabrikak zikinak izan dai-

tezke. Horregatik, plastikozko bi poltsa behar dira: batean garbiak eta bestean zikinak. Horrek, bi poltsa kubo bakarrean jartzea eskatuko ligu-ke. Pintza berri hauek horretarako dira. □

Odola emateko eguna datorren asteartean

■ Hileroko lehen asteartea da odola emateko eguna ■ Anbulatorioan, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara.

Tabernariak bilera dute asteartean

■ ETZI bilera egingo dute Hernaniko tabernariak. Hiru puntu izango dituzte eztabaidatzeko: 2002ko jai egutegia, sagardotegi boladako ordutegia eta euroaren etorrera. Asteartean, Zumitzan, arratsaldeko 16:00etan. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalaria anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Bulnes Etxeberri
☎ 943 557738
►Gauetz: Bulnes Etxeberri
☎ 943 557738

HERIOTZAK

Angela Zubeldia Arozena

Larunbatean hil zen 96 urte zituela

Elizkizuna bihar, astelehena, 19:00etan, Juan Bataiatzailearen parrokian

IRAGARKI MERKEAK

■ Gazte bat behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. Euskaraz dakiena. Interesatuak deitu: 658 750896 edo 943 364605 telefonora.

■ Hernani inguruko jatetxe batean sukalde laguntzaile bat behar dugu. Garraiatzeko modua beharko du. 943 55 02 40.

UGALDE, S.A.
SUKALDE ALTZARIAK

Lastaola industrialdea p.16
Tel. 943.551.598- Mobila 630-033080
Faxa 943.552.067
20120 HERNANI

Zinel

ARALAR
TABERNA

ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbietta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

Adarraga
HERNANI (Gipuzkoa)